



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Arriaga Antzokiak abeslari handiak, BOS eta Bilboko Koral Elkartea taula gainean kokatzen dituen Zarzuela kontzertu dibertigarri batekin amaituko du larunbatean denboraldia

- Vanessa Goikoetxea, Andeka Gorrotxategi, Itziar de Unda, Andrea Jiménez eta Christopher Robertson dira Zarzuelako saio dibertigarrienetako eta trufarienetako batzuk interpretatuko dituzten bost bakarlariak.
- *Ay, babilonio que marea* izenburudun kontzertua Arriaga Antzokiaren ekoizpen lana da eta Iker Sánchez Silva arduratuko da zuzendaritza musikalaz.
- Emanaldia ekainaren 25ean izango da, larunbatean, 19:00etan.

**Bilbo, 2022ko ekainaren 22a.** – Arriaga Antzokiak musika bikaina eta dibertsioa uztartzea aukeratu du larunbat honetarako, ekainaren 25erako hain zuzen, 2021-2022 denboraldiari 19:00etatik aurrera itxiera emateko. Izan ere, *Ay, babilonio que marea* izenburu iradokitzailea duen ikuskizuna proposatuko dio egun horretan zaletuei, zer eta Zarzuela kontzertu bat. Horrekin, Arriaga Antzokiak gau dibertigarria eskaini nahi die ikusleei, musikalki XX. mendeko lehen hamarkadetara eramanez. Mailarik goreneko bost ahots bakarlari izango dira gaueko protagonistak: **Vanessa Goikoetxea, Andeka Gorrotxategi, Itziar de Unda, Andrea Jiménez eta Christopher Robertson** arituko dira oholtzan, **Bilboko Koral Elkartearen** eta **Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (BOS)** laguntzarekin. Eta batutan, zuzendaritza musikalaz arduratuz, **Iker Sánchez Silva** maisua izango dugu.

Arriaga Antzokiak denboraldia amaitzeko gau dibertigarria eskaini nahi du, eszenatokitik alaitasuna kutsatuz besaulki-patioan. Horretarako, aukeratutako erreperitorioak Zarzuela handien konposizio ahaztezinak biltzen ditu. Horrela, Arriaga Antzokira joaten diren ikusleek Zarzuelen saiorik trufarienak eta ganberroenak igarriko dituzte, memoria kolektiboan gordeta daudenak —hala nola *Grant Kapitainaren ilobak*, *El dúo de la africana*, *La Gran Vía*, *Luisa Fernanda* edo *Faraoiaren gorrea*—, eta baita beste harribitxi batzuk ere, XX. mende hasieran Madrilgo eszenatokitik ezagunenetan modan jarri zen eta genero sikaliptikoa izena jaso zuenarenak. Beraz, kontzertuak gonbidapen bat egiten die ikusleei, garai hartako espirituan murgil daitezen, eskaintzen duen pikardia peto-petoarekin eta espontaneoarekin.

Musikak, eta iradokitzeko duen betiereko ahalmenak, argi ahuleko dantza-aretoetan zehar eramango gaituzte, bai eta barre egiteko prest, eta bere burua itxura vaudevilledarreko gozamen lotsagabeari emateko prest dauden ikuslez betetako

aretoetan barrena ere. Ekitaldirako aukeratutako izenburuak berak (**Ay, babilonio que marea**) aurkituko dugunaren berri ematen digu: musikaz eta zoriontasunez beteriko gaua izango da.

#### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 11,50 eta 36 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

## ***Ay, babilonio que marea***

Zuzendaritza musikala:

**Iker Sánchez Silva**

Ahots bakarlariak:

**Vanessa Goikoetxea**

**Andeka Gorrotxategi**

**Itziar de Unda**

**Andrea Jiménez**

**Christopher Robertson**

Korua:

**Bilboko Korál Elkarte**

Orkestra:

**Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS).**

Produkzioa:

**Arriaga Antzokia**

Informazio gehiago:

Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)

[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)